


JOSE MANUEL RAMIREZ AIZPURUA (UDALTZAIN BURUA)

## “Hernanin behar baino multa gutxiago jartzen ditugu”

■ Arazorik haundiena trafikoarekin dute ■ Bizilagunen arteko etxe arazoetan informak bakarrik egiten dituzte ■ Zaborren legediarekin zorrotzago jarriko omen dira.



Udaltzain burua bere despatxuan, lanean.

### ■ KRONIKA: Zein da udaltzaingoaren zeregina?

JOSE MANUEL RAMIREZ: Zeregin asko ditugu: Batetik *Kaxko*ko trafikoa zaindu behar dugu; *kaxko*an gertatzen diren bestelako istripuak ere gure zeregina dira. Bestetik udal ordenantzak bete arazi behar ditugu: tabernen ordutegiak, basuren legeak, obren lizentziak... Gure azken zeregina epaitegietatik datozen aginduak betetzea da.

### ■ Zerk ematen dizue lanik gehien?

Gero eta gehiago trafikoak. *Kaxko* zaharra ez da gehiegi aldatu, baina, kotxe kopurua bai. Auzoetan ere, Zikuñagan, Karabelen eta Olaetan esaterako aparkaleku baino kotxe gehiago dago. Horrez gain jendeak gero eta salaketa gehiago jartzen ditu: espaloian trabatuta erori bada baldosa bat gaizki jarria dagoelako...

### ■ Trafikoaren erremedioa?

Urbanizazio berrietan aparkaleku gehiago egin behar dira; Txantxilak erdiguneko arazoa zerbait konponduko baitu. Horrez gain jendeak oinez gehiago ibili behar du; negozioa ez diogu *Mitxelini* bakarrik egin behar, oinetako saltzaileei ere egin behar diegu.

### ■ Sahiesbide berriak baretuko al du trafikoa.

Zinkonea baretu eta goiko trafikoa kargatuko du. Baretuko duena herri barruko trafikoa izango da.

### ■ Zenbait kejatzen da multa asko jartzen dituzuela-eta.

Hernanin egiten diren infrakzioak kontutan hartuta, oso multa gutxi jartzen dugu. Arrazoiak oso nabarmenak direnean jartzen ditugu isunak: goizetan karga deskargan dauden kotxeek, espaloian gainean edo paso zebatan daudenei,

### JOSE MANUEL RAMIREZ

□ 1986 arte izan omen da hernaniarra; Lasarten jaioa eta bertan bizi dena.

□ 20 urte daramatza Hernanin udaltzain lanean; 3 hilabete egin orduko jarri zuten udaltzain buru.

□ Plantila hamazazpik osatzen dute.

autobusari pasadizoa oztopen dienei...

■ **Hernani herri lasaia al da?** Herri guztiak bezala lasaitasun eta bihurkeriak ditu. Herri lasaia baltz, agian ez luke horrelako bizitarik edukiko.

### ■ Tabernen ordutegiak-eta arazorik izaten al duzue.

Azken aldian ondo errespetzen dira. Zaratagatik ere gero eta keja gutxiago izaten dugu; baina, orain sagardotegi bolada dator eta...

### ■ Herria asko aldatzen al da ba sagardotegi boladan?

Martxorarte nahiko lasaia izaten da; baina, martxotik aurrera eromena da. Larunbatetan 67 autobus ere kontatu izan ditugu; San Joanetan baino jende gehiago, eta hoietatik batzuk mozkortzera etortzen direnak; ez dakite zer den sagardotegiko giroa eta festa. □

## Kantuz Abesbatza Eguberrietan kantari

■ Lau kontzertu emango ditu ■ Hernanin ez ezezik Donostian ere emango du bat.



### “Alaken, alaken... Alapikulatunpaire...”

SANTA Zeziliako ezta nekaturak denkantsatu dutenerako, berriz ere kantuan. Santo Tomas bezperan (abendua 20) Donostiako Artzai Oeko Katedralean abestuko du *Kantuz* abesbatzak.

Santo Tomas egunean, berriz, Hernanin izango da kontzertua Juan Bataiatzailea parrokiaren: *Parrokiko Koroa, Ozenki*

*Abesbatza*, zenbait ikastetxetako umeak eta *Kantuz* bera ari tuko dira kantari.

Eguberri bezperan (hilak 24), urteroko ohiturari eutsiz, gabon kantak abestuko dituzte herriko kaleetan barrena.

Abenduaren 29an, azkenik, Kontzertu Sakroa emango du *Kantuz*ek berak bakarrik. Hori Milagrosan izango da. □

### MENDIRIZ MENDI

## San Esteban-Andatza-Zizurkil, igandean

GAZTETXOENTZAKO mendi irteera izango da datorren igandean. Izena emateko: gaur (osteguna) eta bihar Mendiriz Mendiko lokalean (943-332745) Dirua: gaztetxoek 300 Pta eta helduek 600 Pta. Goizeko 08:00etan aterako dira Atsegindegitik.

### BERTSO SAIOA

## Barrikotea, Mañukorta eta Larrañagarekin

ELUTXETA sagardotegian sagardo eta bertso berriak probatzeko aukera izango da datorren larunbatean. Urteetako ohitura Elutxetan da, Santo Tomas buelta horretan, bertsolarietara barrikotea egitea. Afaria zortzietan da. “*Jainkomendikua da/ holako artizta*”



Skoda Fabia

FABIA bat 1.375.000 ptatik.\* (8.263,99 euro\*)

\* Penintsula eta Balearretako gomendatutako prezioa. \*Skoda Fabia Classic 1.4 60 CV. Garrantzia, zergak eskaintza bereziki plana barne. Stockeko autoentzat baliozgarria. 1 euro-166.386 pta.

MENABI

Txingurri pasealekua, 26 Herrera auzoa DONOSTIA Tel. 943-40 42 4



GALARRETA JAI-ALAI

FRONTOIA

Galarreta gaina z/g - HERNANI

Gaur arratsaldeko 16:00etatik aurrera erremonte jaialdia:

- ⇒ 1. partidua ZALAKAIN - URKO / ZEBERIO III - ETXEBE II
- ⇒ 2. partidua EZKURRA - J. ETXEBERRIA / ALTUNA II - IRIARTE
- ⇒ 3. partidua *Binakako txapelketa*: BITORIA-EIZAGIRRE / ELIZALDE-LIZASO
- ⇒ 4. partidua KALONJE - IMAZ / ZEBERIO I - MENDIZABAL

## Katekesiko umeek opariak eman zizkieten Sandiusterriko zaharrei

■ 'Fidatzea' ren gaia bukatzeko egin zuten katekesiko 4garren mailako umeek.



Umeak opariak banatu zituzten; Olentzerori aurea hartuta.

KATEKESIKO 4garren mailan fidatzearen gaia landu dute. Fidatzea Jainkoarengan, gurasoengan, lagunengan eta, azkenik, gizartearengan. Gaia bukatzeko, azken "detalea" ikasitakoa gertu-gertutik bizitzea izan da.

**"ZAHARRAK BERE OSOTASUNEAN"** Gizartearenganako gertutik bizitzeko Sandiusterriko zaharrei bisita egitea erabaki zuten. "Zaharrak ezagutzea, baina, beren osotasunean: batzuk gaixo daude; besteak gor-

zenbait itxu; eta beste zenbait aulki kurpildunean, ezinean... bizitzan egin beharrekoak eginda."

60 ume eta 7 katekista izan ziren zaharrei opariak eman eta "eguberri zoriontsuak" ospatzeko desioarekin. □

### ELUR-TXORIKO MUS TXAPELKETA

## "Jokua bai, earra gainera!"

■ Bikoteka 36 apuntatu dira eta buruz buru 22 ■ Gaur ere partidak jokatuko dira.



Asteartean Elur Txorin; ez zen bromarik gero!

ASTEARTEAN hasi zen Elur-Txoriko Mus Txapelketa. Bukatu, otsailaren aurrealdera bukatuko da. Partidak astearte, asteazken eta ostegunetan jokatzen dira.

#### GAURKO PARTIDAK

**BIKOTEKA**  
Burugain-Galarraga  
Saez-Valle  
Sanz-Aurelio/Diego-Antonio  
Peli-Ramon  
Tomasena -Larrañaga

#### BURUZ BURU

Sanz-Otegi  
Bilbao-Lopez  
Ordua: 20:30-22:00, hasi.

### HITZ BITAN



Jendearen emanak aparkaleku gehiago eskatzen du Txilidalekun.

#### ✓ HIRIGINTZA

**Hirigintza batzordea gaur 19:00etan.** Txilidalekun aparkaleku gehiago jartzea; Sandiusterriko eta Akarregiko bi partzela zabaltzea eta telefonikako partzela zaharreko (Elizatzon) arau subsidiarioak aldatzea aztertuko dituzte.

#### ✓ MEDIKAMENTU GENERIKOAK

**Hitzaldia suspenditu egin zen, atzo.** Jenderik azaldu ez eta beste egun batean egitea erabaki zuten. Hilaren 20rako (asteazkena) *Behi eroen gaitzari* buruzko hitzaldia antolatuta dute; 18:00etan Biterin.

#### ✓ SORGINTXULOKO AUZO ELKARTEA

**Bihar, ostirala, egingo da saskiaren zozketa.** ONCEko azken hiru zenbakiak dituenak eramango du saria. Igandean bestalde txistorrada izango eguerdiko 12:00etan, auzoan bertan. □

#### IRRATIAK

**Hernaniko ahotsa (E.M. 99.2): 11:50etan:** Iñaki Zuzak Astebururako mendiko plana egingo du. **12:15etan:** Rufinok asteburuko partiduen errebasoa egingo du. **12:35etan:** Hernanitik Nizara joandakoekin berriketan.

#### HERIOTZAK

**Charlotte Struchtemeier Gottner**

Igandean hil zen 56 urte zituela

**Raimundo Oronoz Berezierto**

Atzo hil zen 85 urte zituela

Hileta Elizkizunak, gaur, Floridako Parrokian, 19:00etan

#### ZERBITZUAK

##### ☎ TELEFONOAK

▶ Taxiak: 943 550093  
▶ Udaltzaingoa: 943 333288  
▶ DYA: 943 464622  
▶ Autobusak: 943 556662  
▶ Anbulatorioa: 943 557750

##### ✚ FARMAZIAK

▶ Egunez: Correa Antziola, ☎ 943 551933  
▶ Gaez: Rodriguez Lasarte. Nagusia, 42 ☎ 943 361774



Bisuteria fiña & konplementuak

*Hernanin denda berria zabaldu dugu, gonbidatuak zaudete. Jai zoriontsuak opa dizkizuegu.*

Nagusia, 27 HERNANI 943 335058 - Biteri, 6 ORERETA 943 529359

JANTZI DENDA  
**AMBOTO**  
GABONETAKO KANPAINA  
%25eko Beherapen bereziak  
Nagusia 54 - Tel. 943 552 340 HERNANI

BADATOR OLENTZERO, BADATOR  
*Trinola*  
Txirrita, 10 ☎ 943 552395 - HERNANI  
ZATOZ TXIMELETARA ZURE OPARIAK AUKERATZERA

URGASKA, S.L.  
GAS INSTALAKUNTZA  
MATERIAL SALMENTA  
K21  
\* ASISTENTZIA TEKNIKOA,  
GAS ETA BEROGINTZAN.  
\* GAS PROPANO, BUTANO  
ETA NATURALA: MANTEN-  
Aristizabal 9 Behea  
Tel: 943 33 37 40

winterthur  
ASEGURUAK  
Esna! - Agentzia, C.B.  
Aseguru agentzien Elkarte - Inskripzioa zkia 20-2005  
Jose Joakin Esna! Muguruza  
Aita Kardaberaz, 68  
Tel.- Faxe 943 55 06 28  
20120 Hernani

**Barrikotea**  
Mañukorta eta Larrañaga bertsolariekin.  
Abenduak 16, larunbata. 20:00etatik aurrera.  
Izena emateko:  
Tel. 943 55 69 81  
ELUTXETA  
Sagardotegia Erretegia  
Oztaran Bailara 20130 URNIETA